

@@@AGINDUA, 2011ko uztailaren 21ekoa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena, Bilboko (Bizkaia) «Otxarkoaga» Bigarren Hezkuntzako ikastetxe pribatuari Zereginen Ikaskuntzan unitateak gehitzeko baimena emateko dena.@@@

Bilboko (Bizkaia) «Otxarkoaga» Bigarren Hezkuntzako ikastetxe pribatuaren erakunde titularren ordezkariak abiarazi duen espedienteaz aztertu da, non baimena eskatzen baita Zereginen Ikaskuntzako unitate bat gehitzeko.

Espediente hori Bizkaiko Hezkuntza Ordezkaritzak izapidetu du, arauak eskatzen dituzten agiriak erantsi zaizkio, eta arlo horretan eskumena duten erakundeek hari buruzko txostena eman dute.

Arau hauek hartu dira kontuan: 332/1992 Errege Dekretua, apirilaren 3koa, unibertsitateaz kanpoko araubide orokorreko irakaskuntzak eskaintzeko baimenak ikastetxe pribatuei emateari buruzkoa (1992ko apirilaren 9ko BOE); Agindua, 1998ko uztailaren 30ekoa, beharrezkoak dituzten ikasleak eskolatzeko irizpideak ezartzeko eta ikasle horiek behar dituzten baliabideak hezkuntza-sistemako maila guztietara helarazteko dena (1998ko abuztuaren 31ko EHAA); eta gai horretan aplikatzekoak diren gainerako arauak. Horiek horrela, hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.- Jarraian zehazten den ikastetxe pribatuari baimena ematen zaio Zereginen Ikaskuntzako unitateak gehitzeko, 2011-2012 ikasturtetik aurrera:

Kode-zenbakia: 48003114.

Izen espezifikoa: «Otxarkoaga».

Titularra: Bilboko Gotzaitegia.

Helbidea: Arbolantxa bidea 57.

Udalerrria: Bilbao.

Lurralde historikoa: Bizkaia.

Baimena: Zereginen Ikaskuntzako unitate 1 gehitzea.

Ikastetxearen osaera:

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza: 9 unitate, 270 ikaspostu.

- Hezkuntza Berezia:

● Hezkuntza Bereziko 4 unitate.

● Zereginen ikaskuntzako 5 ikasgela.

- Lanbide Heziketa.

● Familia: Elektrizitatea eta Elektronika.

○ Instalazio Elektriko eta Automatikoak erdi-mailako heziketa-zikloa. Edukiera: ziklo

1.

- Familia: Fabrikazio Mekanikoa.
 - Soldadura eta Galdaragintza erdi-mailako heziketa-zikloa. Edukiera: ziklo 1.
- Familia: Mantentze Lanak eta Ekoizpen Zerbitzuak.
 - Hozteko eta Girotzeko Instalazioak erdi-mailako heziketa-zikloa. Edukiera: ziklo 1.
 - Instalazio Termiko eta Fluidodunen Mantenimendua goi-mailako heziketa-zikloa. Edukiera: ziklo 1.
- Familia: Garraioa eta Ibilgailuen Mantenimendua.
 - Karrozeria erdi-mailako heziketa-zikloa. Edukiera: ziklo 1.
- Familia: Zurgintza eta Altzarigintza.
 - Arotz-lanak eta Altzariak Neurria Egin eta Instalatzea erdi-mailako heziketa-zikloa. Edukiera: ziklo 1.

2. artikulua.- Indarrean dauden arauak betetzera behartuta dago ikastetxea, agindu honen bidez baimendutako unitateetako irakasleen titulazio akademikoari dagokionez. Bestela, balio gabetu egingo da emandako baimena.

3. artikulua.- Martxoaren 17ko 314/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutako Eraikingintzaren Kode Teknikoa bete beharko du ikastetxeak, bai eta indarreko legeriak ezartzen dituen higie-, osasun-, akustika-, bizigarritasun-, segurtasun- eta irisgarritasun-baldintzak ere. Ikastetxeko titularrarena izango da baldintza horiek ez betetzearen erantzukizuna.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.- Agindu honetan dagoen baimen-emateak ez du esan nahi hezkuntza-itunen araubidearen bitartez laguntzarik lortuko denik.

Bigarrena.- Agindu honen aurka, aukerako berraztertzeko errekurtoa aurkez dakiok Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko uztailaren 21a.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburua,
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.